

Merkatuaren segmentazioa

Gure negozioa aurrera eramateko bezeroak funtsezkoak dira, hauek baitira negozio-ereduaren funtsa eta bezerorik gabe enpresak ezingo bailuke epe luzean iraun.

Gure enpresa zehazki, lasaitasuna irakurmenaren bitartez bilatzen duten bezeroentzat egokituta egongo litzateke: ikasketekin eta lan akademikoekin estresatuta dabilen jende gaztea, nahiz, lanean dabiltzan helduak, jubilatua...


Beraz, gure enpresaren segmentu nagusia pertsonaren izaeraren arabera litzateke. Hots, lasaitasuna aurkitu nahi duten pertsonen zuzenduta egongo da. Bestalde, gure zerbitzu karta bi interes mota dituzten bezeroei egokituko da: alde batetik, kalitatea bilatzen dutenei (prezio garestiagoko produktuetan) eta, beste aldetik, prezio moderatuagoa biltzean dutenei.

Horrez gain, gure enpresak ez luke mugarik jarriko behar edo nahi ezberdinak dituzten pertsonen. Esaterako, gure kafetegiak hainbat esne nahiz opildegia begetal eskainiko ditu, dieta begetarianoa nahiz beganoa dutenentzat. Bestetik, intolerantziak dituzten pertsonentzat aukerak egongo dira ere.

Beraz, gure enpresaren helburua bezeroak guztiz asetzeta da eta ondorioz, merkatu segmentu zabal bat edukitzea funtsezkoa iruditzen zaigu.

Izaeraren arabera

	Ikasleak	Adin aktiboa	Jubilatuak
Lasaitasuna	X	X	X
Irakurmenarekiko grina	X	X	X
Produktiboak izateko nahia	X	X	X



Produktuaren kalitate eta prezio erlazioaren arabera

	Ikasleak	Adin aktiboa	Jubilatuak
Kalitate altuko produktuak		X	X
Prezio moderatuko produktuak	X	X	X

Produktuaren izaeraren arabera

	Ikasleak	Adin aktiboa	Jubilatuak
Begetarianoak	X	X	X
Beganoak	X	X	X
Intoleranteak	X	X	X

